

azpeitian zer?

121. zenbakia

udal aldizkaria

2009ko urria



Odoletik

40 urte bete dira Azpeitiko Odol
Emaileen Elkarte sortu zenetik

ale honetan

zer?



- 3 Inkesta
- 4 Herritarren eskaerei erantzunez
- 5 LTDaren estaldura
- 6 Ostiral arratsaldeko azoka
- 8 Odol emaileek 40 urte
- 12 Motxean
- 14 Ikastaroetako izen ematea
- 15 Urrian, kulturaz blai

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
 Egilea: Prentsa bulegoa
 Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
 Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
 Ale kopurua: 7.000
 L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
 arren, zure etxean jaso
 dezakezu Azpeitian Zer?
 aldizkari hau posta bidez.
 Egin eskaria 943 15 71 85
 (Alkatetza) telefonon.

Paper birziklatuan egina



telefono interesgarriak

Azpeitiko Udala

Zentralita	943 15 72 00	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Ingurugiro Etxea		1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Fundazioa	943 15 17 13	2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Kontsumitzaileen		DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	N.A.N. Bulegoa	943 15 71 60	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48		
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Eguneko Zentroa	943 15 74 96			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Liburutegia	943 15 71 95	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Suhiltzaileak	112	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Igerilekua	943 81 41 21	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Polikiroldegia	943 81 30 69	Anbulategia	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta	
Euskara Patronatua	943 81 45 18	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

inkesta zer dio kaleak?

Azpeitiko hilerriak egoera onean daudela iruditzen al zaizu?



Paulo Garate

Azpeitiko hilerria beste zenbait herritakoa baino hobeto dagoela iruditzen zait. Badut joateko ohitura, eta itxura ona izaten du. Santu Guztien egunean ez ezik, urteko gainerako garaietan ete txukun topatzen dut. Bertara joateko bidea ere ondo zaintzen dute, nahiz eta nik kritikatzeko bat eduki: garbi-tzen dutenean, haize sistema erabiltzen dute eta bidearen baztarrean uzten dituzte zakarrak. Egokiagoa da zakarrak jasotzea.



Idoia Arruti

Orain oso gustura gaude Urrestillako hilerriarekin, oso txukun baitago. Baina urteetan oso-oso utzita egon da, eta oso itxura kaskarra izan du. Berez bada nahikoa tristea hilerria joatea, hara iritsi eta itxura negargarri hori ikusteko! Oso penagarri egon da urteetan. Orain belar eta zuhaixka zaharrak kendu dituzte, eta, esan bezala, oso itxura ona du, baina nik hala mantentzea eskatuko nioke Udalari: beti, urte osoan.



Bixente Alberdi

Aitortu behar dizut ez naizela hilerria sartzen: oso leku tristea iruditzen zait, oroitzen kaskar ugari ekartzen dizkirate, eta hortaz, egun seinalatuetan ere atean gelditzen naiz beti. Andrea joaten da, bai, eta hari behintzat ez diot inoiz egoera txarraren inguruko aipamenik entzun. Herritarrok hilerriarentzat zerga bat ordaintzen dugu, eta uste dut ordaintean obligazioa duela Udalak hilerria txukun mantentzeko.



Irene Altuna

Dendara etortzen den jendea oso-oso gustura dago Azpeitiko hilerriarekin. Lan hori kudeatzeko lana enpresa bati eman zitzaionetik, oso txukun dago, eta gainera, beti dago han langileren bat, zerbait behar izanda ere. Santu guztien bezperatan denak akordatzeko dira hilerriaz, eta bertara eramateko lore asko eskatzen ditu jendeak, baina behin garai hau pasatuta, oso-oso gutxi dira hilerria loreak ematera joaten direnak.

Herriarren eskaerei erantzunez...

Udalak jarritako buzoietan eta azpeitia.net webgunean jasotako iradokizun, proposamen, eta kexei apurka-apurka erantzuten ari da Azpeitiko Udala. Hona hemen horren adibide batzuk.

Iradokizuna

Garate Anaia 2 etxepekoek ezin izaten dugu kalera sartu eta irten "kotxe kapota", "silla de ruedas" edo erosketak egiteko karroarekin, portal aurrean autoak aparkatuta egoten baitira. Portal aurrean ezin al da pare bat pibote eta ranpla bat jarri, arazorik gabe eta eroso ibiltzeko?

Etxepekoak

Erantzuna

Gune hori egokitze lanak urtea amaitu aurretik egin nahi ditugu, eta kontuan hartuko dugu zure iradokizuna.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradokizuna

Sanjuandegiko aparkalekuei buruz kexa bat jartzea gustatuko litzaiguke (Salbe auzunea). Aparkaleku gutxi egoteaz gain, (karabanak eta kamioiak aparkatzen dituzte), auzokide batzuk euren garaje aurrean aparkatzen dugulako kexatu egiten dira, nahiz eta hauek baimendutako pasabidea ez pagatu. Udaltzainak isuna jartzera etor-tzen dira, hori bai, nahi dutenean eta nahi duenari. Espaloi gainean aparkatuz gero isuna jartzen dizute, eta espaloi behean aparkatzeko agintzen dizute, baina hurrengo batean nahiz eta espaloi behean aparkatu, insuna jartzen dizute, eta aurretik esandakoarekin ahaztu egiten dira. Gure ustez nahiko zerga ordaintzen ditugu egunero isunak pagatzen ibiltzeko. Aparkalekuak ondo bereiztuta egotea nahiko genuke, eta isunak beti berdin izatea, ez udaltzainak bertatik pasatzen direnean edo auzokide aspertuak kexatzen direnean guri izurratzeko.

Auzokide taldea

Erantzuna

1. Azpeitiko Udaltzaingoak Sanjuandegiko aparkalekuetaz oso kriterio garbiak ditu, eta honakoak dira:

- Bide ertzean, espaloi gainean, baldosa

iluneko metro eta erdiko zati bat dago: hau ahalik eta zorroztzena zaintzen dugu oinezkoek bertatik pasatu ahal izateko. Hemen isunak ipintzen ditugu eta behar bada garabiarekin kotxea eraman ere bai.

- Espaloi handien barrualdean, momentuz aparkatzen utzi egiten dugu. Hemen oraindik isunik ez dugu ipini, ABISUAK baizik, kotxeak ondo aparkatu behar direla esanez.
- Gure jokabidea garbia da: oinezkoek espaloitik lasai ibiltzeko lekua behar dute, kotxeak garajetatik irteteko ere bai. Kotxe-dunek badakite zer egin, Trafikoa arautzen duen legea bete eta ondo aparkatu.

Abisuak ipintzen hasi aurretik, eguneko ordu ezberdinetan Sanjuandegiko aparkaleku hutsak kontatu genituen eta jendeak uste baino aparkaleku gehiago dago. Espaloi handietako kotxe guztiak ia-ia kabitzeke agina. Jende batek ohitura hartuta du beti espaloi handien barrualdean aparkatzeko (izotza dela, eguzkia, dela, erosoago delako, e.a.) eta sekula ere ez dira saiatzen margotutako aparkalekuetan beraien kotxeak aparkatzen. Ez dut uste etxeko atetik 100 edo 200 metrotara aparkatzea lan izugarria denik.

Bukatzeko, nahiz eta batzuk berrikerian jardun, guk geure lana ahalik eta ondoen egiten jarraituko dugu. Heritar guztien deiak atenditzen jarraituko dugu (baita azperturenak ere, zuek diozuen bezala) eta balorazioak banan-banan egin eta gero denei emango diegu irtenbiderenbat, beti ere legearen ere gure ahalmenen barruan.

Joxe Anjel Aristi Urtuzaga. Udaltzainburua.

2. Sanjuandegiko gune horretan lanak egiten ari gara dagoeneko, aparkalekuen arazoa ahalik eta modu egokienean konpontzeko asmoarekin. Kamioi eta karabanentzat aparkatzeko guneak jartzea ere aztertzen ari gara, gainera, premia dagoela bai baitakigu. Halere, bertako auzokideei eskari bat ere luzatu nahi nieke, haiek ere lagun dezaten: garajea dutenek autoa barruan

sartzeko, besteentzat aparkaleku gehiago libre izateko.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

Azpeitiko parke gehienak, zoritxarrez, txakurren komun bihurtu dira. Edonon ikusi daitezke txakurrak (eta bere arduradunak) pasieran. Eta, bide batez, gorputza arintzen... Zikinkeria handia da, kalea guztiona da eta guztion artean zaindu beharko genuke.

Ramon Odriozola

Erantzuna

Arazo hori irtenbidea emateko ahaleginetan ari gara, eta urtea amaitzerako txakurrentzat "komun" bereziak jartzekotan gara. Toki horiek non ezarri aztertzen ari gara orain. Behin araudi bat ezarri ostean herriarrek behar bezala bete dezaten ahalegina ere egingo dugu.

Iñaki Etxezarreta. Zinegotzia.

Iradozkizuna

Kexa luzatu nahi dut kanpoko igerilekuari buruz. Udan bertara joateko ohitura hartu dut, hiru hilabeteko kuota familiar bat ordainduta. Arazo bat topatu du, ordea: Eskuin aldean jartzen direnak blai eginda amaitzen dute, harritik eta perretxikotik etortzen den urarengatik. Udalarari eskatu nahi nioke panel batzuk jarri edo perretxikoko ura kentzea.

Idoia Aranbarri.

Erantzuna

Kanpoko igerilekuko kexari erantzunez, adierazi nahi dizut hurrengo denboraldirako saiatuko garela arazo hori irtenbide bat ematen. Ikerketa bat egingo da teknikoarekin, arazo honi irtenbide egokia emateko.

Julian Kortajarena. Zinegotzia.

Itzalaldi analogikorako prest

Urtea amaitzerako herrian eta auzoetan estaldura bermatuta egotea espero du Udalak



Etxepeko antenari TDT konezioa ezarri da.

Edozer arazo izanez gero deitu antenistari.

Etxepeko Administrazioa

behin eta berriz iragarritako itzalaldi analogikoa gero eta gertuago dago. Datorren urteko apirilaren telebista emisio analogikoa betirako geldituko da, eta LTD Lurreko Telebista Digitalak hartuko du bere ordezkia. LTD horren estaldura bermatzea da, hortaz, orain lehentasuna, une horretatik aurrera Azpeitia eta bere auzoetako etxe guztietan telebista ikusteko modua izan dadin. Horretarako lanean ari da Udala, eta urtea amaitzerako lortzea espero du.

Espainiako Gobernuak hala aginduta, Abertis enpresak estalduraren %95a bermatu beharra dauka legez, eta hala egin du Azpeitian ere: herriagunearen ia osoak badu jada kobertura. Hortik aurrerakoa bermatzeko konpromisoa, berriz, Eusko Jaurlaritzak, diputazioak eta EUDELeK hartu dute, Itelazpiren bidez. Eta Itelazpik bi baldintza jarri ditu: lur jabeekin antenaren inguruko akordioa lortuta izatea, eta antenarako joan-eto-

rrirako bidea egokituta izatea. Bi baldintza horiek betetzeko lanean ari da Udala, Azpeitiko auzoetarako emisioa bermatzeko.

Lepasoroko antenarako iada eginda dago. Lur jabea Udala bera da, eta bertarako bidea ere egokituta dago; beraz, irail amaierarako estaldura jarrita zuen Itelazpik. Horri esker, Soreasu eta Urres-tillako etxebizitzetan LTD ikusteko modua dago jada.

Oñatzeko antenari dagokionez, lur jabeekin gestioak eginda daude jada, eta antena eta bere azpiegitura egokitzeko lanak egiten ari dira orain. Estaldura lan horiek amaitu, eta berehalakoan jartzekotan da Itelazpi, eta horri esker, Aratz Erreka eta inguruetako etxebizitzetan LTD ikusteko modua izango dute hil honetan bertan.

Nuarbeko azpiegiturak, berriz, berrikuntza batzuk beharrezkoak ditu, bai antenari bertan eta baita bertarako bidean ere. Lan horiek azarorako egitea espero du Udalak, eta ondorioz, hilabete horretarako aurreikusi du Nuarbe eta inguruetako estaldura martxan izatea. Beste horrenbeste gertatzen da Araun-tzako antenarekin ere, hura ere azarorako prest egotea espero du Udalak. Agite eta Loiolako hainbat inguruetako estaldura bermatuko du antena horrek.

Azkenik, Kizkitzako antenaren kudeaketa gelditzen da. Antena horrek Mantxinbenta eta inguruetako estaldura bermatzen du, eta gestioa Ezkio-Itsaso eta Azpeitiko udalek adostu behar dute. Ezkio-Itsasoko Udalak antena orain dagoen tokitik kendu nahi du, eta non jarri aztertzen ari

da Itelazpi. Azterketa horren emaitzaren arabera erabakiko da antena Azpeiti edo Ezkio-Itsasoko lurretan jarri. Behin hori erabakita, dagokion udala arduratuko da lur jabeekin akordioa lortu eta bidea egokitzeaz.

“Azkeneko unera arte itxaron gabe, LTDk funtzionatzen duen ala ez konprobatzea komeni da, eta funtzionatzen ez duen kasuan Udalean abixua ematea, apirila baino lehen arazoa konpontzeko modua izan dezagun”

Ondo bidean, beraz, urtarilerako estalduraren %100a bermatuta egotea espero du Udalak. Baliteke, ordea, zuloen batzuk kobertura gabe gelditzea, probatu arte ez baitago jakiterik emisioa zehazki noraino iristen den. Horregatik proba egiten hasteko gomendatzen die Udalak herritarrei: “Azkeneko unera arte itxaron gabe, funtzionatzen duen ala ez konprobatzea eskatzen diegu, eta funtzionatzen ez duen kasuan Udalean abixua ematea, apirila baino lehen arazoa konpontzeko modua izan dezagun”. Hala adierazi du Iñaki Etxezarreta Zerbitzu Orokorretako batzordeburuak. Horretarako bi modu daude: telebista berrienek jada barneratuta dute LTDaren emisioa jasotzeko dekodifikatzailea eta aktibatu besterik ez da egin behar. Telebista zaharragoa dutenek, berriz, dekodifikatzailea erosi beharko dute, eta harekin egin proba. Elektrogailu dendetan emango dizuete horren inguruko informazio guztia.

Saldu ez ezik, erakutsi

Ostiral arratsaldeko azokan produktu ezberdinen inguruko informazioa eta erakustaldiak egiten hasi dira baserritarrak, salgai dituzten jakiak hobeto ezagutarazteko



Parrilan erre zituzten piperrak.

Piperraren erakustaldia egin zuen urriaren 2an

“Ikasturte berriari indarrez ekin diote bailarako baserritarrek: irailaren lehen asteburutik ekimenez josita izan da ostiral arratsaldeetako azoka, eta urrian eta azaroan ere hala dator. Baserritarren merkatura erakarri nahi dituzte herritarrak, eta euren bizimodu eta lanbidea ezagutarazi. Horregatik, eurek salgai dituzten produktuen inguruko informazio erakustaldiak egingo dituzte azarora bitartean.

“Detaile ederra da azokara erosketak egitera etorri eta horrelako aukerak ikustea”

Urriaren 2an hasi ziren ekimen berriarekin. Egun horretan piperraren arratsalde egin zuten, azoka barazki horri eskainiz. Baserritarrek piperrak nola prestatu erakutsi zuten, eta pikilo piperra nola ontziratu ere bai: berdura plazan parrila jarri, eta piperrak bertan erre zituzten, jendeak nola egiten zen ikusteko aukera izan zezan. Ikusi eta ikasi bakarrik ez, erretakoa dastatu eta erosteko modua ere egon zen, eta ekimenak oso harrera ona izan zuen: “Detaile ederra da azokara erosketak egitera etorri eta horrelako aukerak ikustea. Niri asko gustatu zait”, zioen Arantxak, bertaratutako erosle batetik. Bera bezala, azpeitiar ugari batu zen

pikilo piperraren nondik norakoak ezagutzera, eta giro aparta sortu zen azokaren bueltan. “Gainera orain musika ere jartzen dute eta oso animoso egoten da haur!”. Gustura mintzo zen Arantxa.

“Gainera orain musika ere jartzen dute eta oso animoso egoten da haur!”

Bertako baserritarrek ekoizten dituzten piper motekin erakusketa txiki bat ere jarri zuten; besteak beste, Loiolako piperra, Kakute piperra eta pikilo piperra ikus zitezkeen han.



Jende ugari batzen da ostiral arratsaldeko azoka

Giro on horri eutsi nahi diote, hain justu, baserritarrek, eta pikilo piperraren ondolik beste hainbat produktuekin ere egingo dituzte erakustaldiak. Hala, urriaren 22an gazta eta menbrilloaren arratsaldea egitea aurreikusi dute, eta bi produktu horien nola egiten diren erakutsiko dute azokan, prozesuaren hasieratik bukaerara arte. Azaroaren 6an, berriaz, gaztainaren inguruan aritzekoak dira: gaztain arbolaren nondik norakoak, noiz jasotzen den, nola gordetzen den... Horiek dira aurreikuspenak, baina gehiago egitea ere posible dela adierazi du Iñaki Etxezarreta zinegotziak: “Babarruna, artoa... garaian garaiko produktuak kontuan hartuta bat edo bestearen inguruan aritzeko asmoa dute baserritarrek”.

“Babarruna, artoa... garaian garaiko produktuak kontuan hartuta bat edo bestearen inguruan aritzeko asmoa dute baserritarrek”

Finean, jendeak euren produktuen inguruko informazioa izatea nahi dute baserritarrek, salgai dituzten jakiak nondik nora sortzen diren erakutsi, herritarrek zer jaten duten jakin dezaten. Azpeitiarrak jakien kalitatearen inguruan kontzientziatu nahi dituzte, eta bide batez, baserri mundua ezagutzen ez duen horiei euren lana gertutik ezagutarazi.

Helburu horrekin hasi ziren ostiral arratsaldeko azoka egiten uda hasieran, eta helburu horrekin ari dira lanean orduz geroztik. Abuztuan ere izan da ostiral arratsaldeko azoka, baina irailean ekin zieten azokaren bueltako ekimen bereziak egiteari. Hilabete horretan, baserritarren produktuez betetako otarre eder bat zozkatu zuten, ostiralero, erosleen artean, eta “oso harrera ona” izan zuten ekimenak.



Irailean otarrak zozketatu dituzte.

Eta hemendik aurrera ere bide bera jarraitzeko konpromisoa hartu dute baserritarrek. Hilero-hilero ekimen ezberdinak antolatuko dituzte, herritarrak azokara erakarri eta giro ederra lortzeko asmoarekin. Azken finean, azokak historian zehar izan duen izaera bikoitz horri eustea da helburua: azoka, baserritarren produktuen saltoki gisa, eta azoka, herritarren elkargune moduan.

Batzordea martxan

Baserritarren erronkei aurre egiteko elkargunea martxan da jada.

Ostiral azoka indarberritzeko helburua asmo hutsetan gelditu ez dadin, baserritarrek jarraipen batzordea sortu dute jada. Bertan, azokan egoten diren baserritarrak eta udaleko ordezkariak batzen dira, bai epe motzera eta bai epe ertainera egin beharreko ekintzak aztertu eta zehazteko. Hileko bigarren ostegunero biltzen dira, eta pixkanak-pixkanaka erritmoa hartzen ari direla dio Iñaki Etxezarreta Baserrien saileko batzordeburuak: “Azokaren bueltan egingo ditugun ekimenen zerrenda bat osatu dugu, eta horiek aurrera nola eman zehaztu beharko dugu orain”.

Izan ere, ostiral azokaren bueltan sortu den mugimendua indartu eta mantentzea ezinbestekoa iruditzen zaie bai baserritarrei eta baita udaleko ordezkariari ere. “Gauzak egiten hasi gara, jendea gogotsu dago, eta horri eusteko oso garrantzitsua da antolatzea”, azaldu du Etxezarretak. Batzordeak horretarako bidea emango dutelakoan dago. Hileroko dinamika batean sartuta emaitza hobeak izango dituztela seguru daude baserritarrak ere, eta horregatik sortu dute batzordea.

Elkartasuna odolean

Azpeitiko Odol emaile elkarteak sortu zela 40 urte beteko dira laster. Sortzaileak eta egungo kideak batu ditu ‘Azpeitian zer?’-ek, orduko eta egungo egoera aztertzeko.



Odol emaileen elkarteko kideak, 1985ean egindako afari batean.

“ Imanol Azkuek nahastu ginduen lagun guztiok!”. Bat datoz Pedro Bereziartua eta Juan Jose Larrañaga. Orain ia 40 urte lagun hark izandako insistentziari esker Azpeitiko Odol Emaileen elkarteak sortu zuten hirurek, beste hainbat lagunekin batera. “Ordu-rako Donostian bazen elkarteak, Azkoit-tian ere bi urte aurretik sortua zen, eta Imanolek hemen ere egin behar genuela esaten zuen behin eta berriz, kuadrilako guztiak konbentzitu gintuen arte”, oroitu da Bereziartua. Bergarako emakume batengana jo zuten orduan, “hura Berga-rako elkarteak ibiltzen zelako, eta kontu horiek nola ziren bazekielako”. Horretan aritzen zen mediku baten hitzaldira ere joan ziren, eta nahikoa informazioa bil-duta, lanari ekitea erabaki zuten.

1969ko urriaren 24an egin zuten aurre-neko odol bilketa, muestrariorako. Urte hartako abenduaren 5ean egin zuten bi-garren muestrarioa, eta lehen odol bilke-ta ere bai. Hamaika lagunek eman zuten orduan odola. Aurreneko odol ateraldi hura Jesuitinek Errebalean zuten lokalean egin zela gogoratu dira Bereziartua eta Larrañaga: “Pare bat soilik egin genituen han, lokala txikia zelako eta toki egokiago bat nahi genuelako”. Zierbetako mojena joan ziren lokal egokiago horren bila, eta han “oso ondo” hartu zituzten. “Karmele Zulaika zen orduko moja burua, eta asko gustatu zitzaion odol emaileen proiektua. Haiek ere gaixoak zaintzen zituzten, eta beren filosofiarekin bat zetorrela ikusi zuenez, berehala eman zigun bertako gela bat erabiltzeko baimena”.

“Zierbetako mojek ere asko laguntzen ziguten, nahiz eta tartean aldrebes xamarren bat ere bazegoen!”

Hamalau urtez izan zen zierbetakoa odol emaileen gune. Urte horietan hilero-hilero joaten ziren bertara odol emaileak euren aportazioa egitera. “Bertako mojek ere asko laguntzen ziguten, nahiz eta tartean aldrebes xamarren bat ere bazegoen!”, dio Bereziartuak. Eskertzeko, urtero urtero Saninaziojaietan opari bat ematen zieten ere oroitu da: “Otarratxo bat ematen genien, jakiekin eta, egiten ziguten mesedea eskertzeko”. Baina hura ere amaitu zen. Moja burua aldatu zen eta

hark ez zuen, nonbait, oso gustuko, odol emaleak hara bueltara ibiltzea: "Badakizu, jende asko ibiltzen ginen, gizonezko gazteak ere asko aurrera eta atzera, eta beno, euren intimitatean sartzen ginela edo irudituko zitzaion agian..." dio Bereziartuak. Hilean hiru ordutan soilik joaten ziren hara, baina arazoak pilatzen hasi ziren, eta orduan tokiz aldatzea erabaki zuten.

Orain Baigera 1 dagoen tokian anbulatorioa zegoen eta han egin

zioten tokia. "Baina han oso denbora gutxi egin genuen, segituan inauguratu baitzuten egungo anbulatorioa, eta berehala joan bakinen bertara", azaldu du Larrañagak. 1985. urtea zen. "Behingoagatik toki handi eta egoki bat lortu genuen, eta oso gustura hartu genuen". Eta horrek zuzenezuzenean eragin zion odol emale kopuruari: "Toki berrian jende gehiago sartzen zen, azpiegiturak ere askoz egokiagoak ziren, eta jende gehiago hasi zen etortzen".

"Toki berrian jende gehiago sartzen zen, azpiegiturak ere askoz egokiagoak ziren, eta jende gehiago hasi zen etortzen"

Anbulatorioan pasatu dituzte azken urteak. Hasierako behin-behinekotasuna atzean utzi egonkortasuna lortuta, oraina eta geroa dituzte, ordutik, buruan, Azpeitiko Odol emaleek.

Azpeitiko lehen anbulantzia



egoten zen gordeta: "Gu astero biltzen ginen plaza hartako tabernan, eta bileraren ostean beti joaten ginen autoa arrankatu eta behar bezala zegoela ikustera", kontatu du Bereziartuak. Herriko taxistek izaten zuten anbulantziaren giltza, eta beharra zegoenean zegoen kion taxistak hartzen eta gidatzen zuten anbulantzia. Auto hark egindako lehen bidaia zein izan zen ere gogoratzen da odol emaleetako kidea: "1971ko urtarilaren 31n bedeinkatu genuen autoa herriko plazan, eta arratsalde hartan bertan egin zen aurreneko bidaia, Zestoako gaixo bat emateko".

Urte askoan egin zuen lana "gaixo berebil" hark, eta ondo erabilita erretiratu zuten: "Esku askotatik pasatutako autoa izan zen, lan asko egindakoa. Ondo amortizatu genuen", gaineratu du Bereziartuak. Herritarrek emandako diru hari esker, gainera, galerarik gabe iraun zuela gaineratu du Juan Jose Larrañagak: "Osasun arduradunei kostatu egiten zitzairen anbulantziaren gastuak ordaintzea, baina guk autoa erosteko jendeak emandako dirua bagenuen, eta harekin estaltze genituen zulo guztiak". Anbulantzia haren argazkia ondo gordeta dute oraindik ere odol emaleen elkarteek.

azpeitiak izan duen aurreneko anbulantzia odol emaleek lortu zuten. Herrian ez zegoen, eta nola edo hala lortu behar zutela erabakita hasi ziren lanean. Azpeitiko enpresetara joan ziren, banan-banan, diru eske, eta langile guztiek egin zuten euren aportazioa, 4-5 bat durokoa. 1971. urtean izan zen hori, eta "gaixo berebila" izena jarri zioten. "Chevrolet markakoa erostekoak ginen hasieran, baina hura ez zela egokia eta SEATa ekarri genuen azkenean", oroitzen da Pedro Bereziartua odol emaleetako kidea.

"1971ko urtarilaren 31n bedeinkatu genuen autoa herriko plazan, eta arratsalde hartan bertan egin zen aurreneko bidaia, Zestoako gaixo bat emateko"

Herriarentzat eta herritarrentzat erosi zuten, eta garai hartan Donejakue plazan zegoen suhiltzaileen estazioan

Errelebo bila

Gazteak odola ematera animatzea dute erronka nagusi Odol emaileek



Bereziartua, Larrañaga, Iturzaeta eta Aldai, Odol emaileen elkarteko egungo kideak. Aurreneko biak fundatzaileak ere badira.

a zpeitiko anbulatorioan, goiko lokaletan aritzen dira egun Azpeitiko Odol Emaileak. Hilean behin egiten dira emanaldiak, eta hilabete batean bi aldiz ere bai. Azpeitian odol emaile kopurua “oso egokia” dela diote elkartekoek, eta horren adibide, iaz batez beste 86 emanaldi egin zirela adierazi dute. Berrogei urte betetzear, hobekuntza ugari izan direla diote, batik bat azpiegitura eta profesional artean: “Lehen moja eta enfermerak borondatez eta dohan etortzen ziren, eta ahal zutena egiten zuten; orain berriz denak dira profesionalak eta oso zehatz egiten dute guztia”, dio Pedro Bereziartua Azpeitiko Odol Emaileen fundatzaileak.

Azpeitiko emanaldiez gain, Errezilera

ere joatena dira, eta Biele enpresara ere bai. “Bereziki eskertu nahi dugu Bielekoen ahalegina, Azpeitian ahalegin hori egiten duen enpresa bakarra baita”, nabarmendu du Xele Iturzaeta elkarteko kideak. Enpresa gehiagok parte hartzea nahiko luketeela onartu du, eta horretara animatu nahi ditu, nahiz eta jakin horrek aparteko lana suposatzen duela: “Eragozpenak eragiten dituela badakigu, baina merezi duela iruditzen zait”.

“Gu iada adinean aurrera goaz, eta erreleborik gabe gelditzeko beldurrez gara”

Gazte jendea gerturatzea da duten beste erronka. “Gu iada adinean

aurrera goaz, eta erreleborik gabe gelditzeko beldurrez gara”, adierazu du Iturzaetak. 30-40 urte inguruko jendea joaten da odola ematera, eta horiekin oso gustura daude, “baina hortik beherakoak oso gutxi agertzen dira, eta horiek animatu nahi genituzke”. Izan ere, zenbaitek nahikoa odol badagoela pentsa dezake, baina Azpeitiko Odol emaileen elkartekoek argi utzi dute inoiz ez dela nahikoa izaten: “Kontuan izan behar da odola eten gabe behar izaten dela, eta plaketak, adibidez, iraungitu ere egiten direla: guztiaren premia dago”. Iturzaetaren iritziz gazteak erakartzeko gurasoen lana da eraginkorra: “Etxean esan behar diete etortzeko, konbentzitu egin behar dituzte, eta eurekin ekarri”.



Egun odola ematera etortzen direnen euren seme-alabak ekarrita kopurua nabarmen handituko litzatekeelakoan dago.

Gazte horiek eta gainerakoak erakartzeko ahaleginetan jarraituko dute Azpeitiko Odol Emaileek etorkizunean ere. "Jende berria etorri eta gu jubilatzeke desiatzen gaudelako!". Irribarrez esan dute Pedro Bereziartua eta Juan Jose Larrañagak. Erretiratzeko gai izango diren zalantza egin dute Odol Emaileen Elkarteko gainerako kideek.

Iaz, batezbeste, 86 odol emanaldi egin ziren Azpeitiko Odol Emaileen Elkartearen.

Lau harmakadako lanaren errekonozimendua

Azpeitiko odol emaleek elkartearen sortzaileei omenaldia egingo diote hilaren 25ean



elkarteko sortzaileei. Gainerako odol emaleei intsignia eta diploma banaketa ere bertan egingo da.

14.30ean lagunarteko bazkaria izango dute Loiolako Kiruri Jatetxean, eta bazkal ondoan musika eta dantza egiteko aukera izango da, urtero legez.

Aizarnazabal, Arroa, Azkoitia, Azpeitia, Errezil, Getaria, Itziar, Zarautz, Zestoa eta Zumaiko odol emaleak batuko dira urriaren 25eko ekitaldiak

Aizarnazabal, Arroa, Azkoitia, Azpeitia, Errezil, Getaria, Itziar, Zarautz, Zestoa eta Zumaiko odol emaleak batuko dira urriaren 25eko ekitaldiak. Parte hartu nahi dutenek euren ordezkaritzan eman beharko dute izena, urriaren 19a baino lehen.

Horren aurretik hitzaldi bat ere antolatu dute odol emaleek. Urriaren 15ean izango da, 19:30tan, Baigeran. Xabin Urzelai izango da hizlari, Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteko burua.

Urriaren 25a egun seinalatua izango da Azpeitiko Odol Emaileentzat. Egun horretan Urola Kostako ordezkaritzako kideen bilkura egingo da Loiolan, eta bertan orain 40 urte Azpeitiko elkarte sortu zuten lagunak omenduko dituzte. Bertako

eta bailarako odol emaleak 11.45ean bilduko dira Loiolan, eta ondoren meza izango dute Basilikan.

Meza ostean egingo da batzarra Gogartetxean, 13:00ean, eta bertan egingo zaie omenaldia Azpeitiko

Urriaren 25en fundatzaileak omenduko dituzte.

Gimnasia Abdominal Hipopresibo ikastaroa, hastear



Urriaren 19tik aurrera gimnasia mota berria eskainiko du Kirol Patronatuak

azpeitiko Kirol Patronatuak ikastaro berri bat eskainiko du aurtengo ikasturtean: Gimnasia Abdominal Hipopresiboa. Sabel barruko presioa jaitsi eta ondoren horma abdominalaren eta zoru pelbikoko tonua handitzen laguntzen duen gimnasia mota bat da. Talde txikietan egiten da, eta beti ariketa berdina errepikatzen dira, fisioterapeuta baten gidaritzapean.

Emakume nahiz gizonezkoentzat da ikastaroa, eta astearte eta ostegunetan emango dira klaseak, 11:00etatik 12:00etara, igerilekuan. Urriaren 19an hasiko da ikastaroa, eta izena eman nahi duenak igerilekura (943 81 41 21) edo kiroldegira (943 81 30 69) jo beharko du, 15:00etatik 21:00era.

Horrez gain, urteroko kirol eskaintza ere egin du Kirol Patronatuak eta nahi duenak aerobic, pilates, spinning, mantenu gimnasia eta beste hainbat ekintzetan izena emateko modua badu jada, kiroldegian edo igerilekuan.

Ipuin kontalariak, liburutegian



Adin ezberdinetako haurrentzat saioak egiten ari dira

Ikasturte berria estreinatzeko ipuin kontaketa antolatu ditu Udal Liburutegiak. Euskal Herriko ipuin kontalari ezagunek kontaktzen dituzte ipuinak, adin ezberdinetako haurrei zuzenduta. Dagoeneko lau saio egin dituzte Maite Franko, Lupe Lekuona, Amaia Zinkunegi eta Pello Añorga kontalariak, eta oso harrera ona izan dute. Hemendik aurrera ere izango da, gainera ipuinak entzuteko aukera: azaroaren 23ra arte, astelehenero izango dira ipuin kontaketa, liburutegian bertan, 18:00etan hasita. Hona egitaraua:

- Urriaren 19an, Maite Frankok kontatuko ditu ipuinak, 6-7 urteko umeentzat.
- Urriaren 26an, Lupe Lekuonak kontatuko ditu, 8-9 urteko haurrentzat.
- Azaroaren 9an, Mirian Mendozak, 4-5 urteko haurrentzat.
- Azaroaren 16an, Pello Añorga, 6-7 urteko umeentzat.
- Azaroaren 23an, Pello Añorga, 4-5 urteko haurrentzat.

Bestalde, Udal liburutegiak jakinarazi nahi du Azpeitiko Zine Klub Taldeari esker DVD eskaintza zabaldu egingo duela. Izan ere, Zine Klub taldeak iazko ikasturtean bota zituen filmak dohaintzan utzi dizkio liburutegiari: guztira 36 film, tartean haurrentzakoak ere bai.

Antzerki topaketak ate joka



Estreinaldiz josita etorriko dira topaketak, azaroaren 6tik 29ra

Iristear dira aurtengo antzerki topaketak. Azaroaren 6an hasita, euskarazko antzerkiaren emanaldi ezanguratsuenak etorriko dira Azpeitira, bai profesional eta bai amateurren kategorian. Estreinaldi ugari izango dira aurtengo edizioan, tartean Agerre Teatroaren Doltza lana eta Lakrikun taldearen Greban gaude II antzezlanea.

Umeentzako antzerkiak garrantzi handia izango du, gainera. Hala, hiru antzerki konpainia profesionalek umeentzat egindako lanak ekarriko dituzte herrira, antzerki, txotxongilo eta zirko konpainia bat tartean direla. Horrez gain, eskoletara ere egingo du salto antzerki topaketak urtero legez, eta bailarako ikastetxeetako gaztetxoek parte hartzeko aukera izango dute.

Iaz zabaldutako bideari jarriki, gainera, II. Antzerki Azoka eguna izango da aurtengo edizioan ere, azaroaren 13an. Sektoreko programatzaile, banatzaile eta profesionalen topagune bihurtuko da azoka, iazko esperientzia positiboa indartu asmoz. Egun horretan, gainera, bost antzezlandik gora emango dira aldi berean herrian.

Guzti horrekin batera, Txalo saria ere emango du aurten Azpeitiko Udalak, antzerkiaren munduan egindako ibilbide oparoa saritzeko. Azaroaren 29 bitartean izango dira ekitaldi guzti horiek, eta askoz gehiagoa, Izarraitz pilotalekuan eta herriko beste hainbat tokitan.

‘Gure inguruari begirada bat’ lehiaketan parte hartzeko azken aukera

Urriaren 24an amaituko da ingurumenari buruzko argazki lehiaketan izen-emate epea

VIII. Gure inguruari begirada bat Argazki Lehiaketan parte hartzeko azken eguna urriaren 24a da. Parte hartzaileek ordurako aurkeztu beharko dituzte euren lanak, Azpeitiko edo Azkoitiko udaletxean, Tokiko Agenda 21 sailean. Aurtengo lehiaketaren gaia *Gure basoak, bizi iturri* esaldian bildu dute. “Gai horrekin, bizitzarentzat basoak urtaro desberdinetan duen garrantzia eta egungo gure paisaia egiten duen ekarpena azpimarratu nahi dira”, azaldu dute antolatzaileek. Epaimahaiak erabakia urriaren 29an hartuko du.

Lehiaketako sariak, beriz, Santo Tomas Egunean banatuko dituzte. Urtero bezala, bi sari nagusi banatuko dituzte, biak 225 eurokoak. Horrez gainera, beste 135 euroko hamar sari ere emango dituzte antolatzaileek.

Jakituriak ez du mugarik

Hamahiru ikastaro antolatu dituzte Gazteria, Hezkuntza, eta Parekidetasun sailek ikasturte berrirako.

Jakituriak ez du mugarik. Hala dio esaerak. Eta hori egiaztatzen laguntzeko ikastaro ugari antolatu ditu aurtengo ikasturterako Azpeitiko Udalak. Gazteria, Hezkuntza eta Parekidetasun sailek, esaterako,

hamahiru ikastaro antolatu dituzte, adin guztietako gizon eta emakumeei zuzenduta.

Izena emateko epea zabalik dago jada. Horretarako ikastaroa antola-

tzen duen sailera deitu besterik ez da egin behar. Izena orain ematea komeni bada ere, ikasturte osoan egin daiteke, ikastaroa egin nahi duen orok horretarako aukera izan dezan.

IKASTAROAK TAILERRAK...

HEZKUNTZA SAILA

Adin guztietako emakume eta gizonen zuzenduta

Gitarra ikastaroa

Euskaraz

Amaia Garmendiaren eskutik
(943 025 906)

- Astelehenetan (15:00-17:00)
- Sindikatu zaharreko azken solairuan

Chi Kung – Elebitan

Prexen Letamendiaren eskutik
(943 150303)

- Ostegun arratsaldeetan
- EParen egoitzan

Umetxo bat dugu gure bizitzan

Euskaraz

Edurne Salegiren eskutik (685 731 301)

- Haur bat izan berri duten bikoteei zuzenduta
- Astearte goizetan edo ostiral arratsaldeetan
- Sindikatu zaharrean
- Gehienez 15 laguneko taldea izango da

Puntua

Euskaraz

Rosario Ibaietaren eskutik (gurutze puntua, puntua, eta makinako brodatua)
(943 81 28 62- 943 81 65 94)

- Astelehen eta ostegunetan, arratsaldean

- Emakumeen lokalean (Damaso Azkue 1)

Ehoziri-lana (bolillo)

Euskaraz

Arantxa Sistiagaren eskutik (656 788246)

- Astearte arratsaldeetan
- Emakumeen lokalean (Damaso Azkue 1)

Ebaketa eta jantzigintza

Elebitan

Maite Ostraen eskutik (943 81 24 64)

- Asteazken eta ostiraletan, arratsaldean
- Emakumeen lokalean (Damaso Azkue 1)

Eskulanak

Elebitan

Esther Etxarri (653 714 972) eta Belen Zendoiren (943 81 15 95) eskutik (metal gainean pintatzea, egun gainean pintatzea, poliuretano gainean pintatzea, gauza zaharren berriztapena eta argazki zaharrekin egindako kaixak).

- Asteazken eta ostegunetan, goize eta arratsaldean
- Astearteetan, arratsaldean
- Emakumeen lokalean (Damaso Azkue 1)

Marrazki artistikoa eta margolanak

Euskaraz

Marian Alberdiren eskutik
(943 15 17 97- 679 881 100)

- Astelehen eta ostiraletan, goize eta

arratsaldean.

- Ostegunetan, goizean.
- Emakumeen lokalean (Damaso Azkue 1)

PAREKIDETASUN SAILA

Adin guztietako emakumeen zuzenduta

Antzerki tailerra

Euskaraz

Alaitz Olaizolaren eskutik

- Ostegunetan, (15:00-17:00)
- EParen egoitzan

GAZTERIA SAILA

Adin guztiei zuzenduta

Begirale ikastaroa

Euskaraz

Urtxintxa eskolaren eskutik

- Urritik maiatzera bitartean, larunbat eta igandeetan
- EParen egoitzan

Zeinu hizkuntza ikastaroa

Euskaraz

Julian Rodriguezen eskutik

- Asteazken edo ostegunetan
(18:30-21:30, 30 orduko ikastaroa)
- EParen egoitzan.

Masaje ikastaroa

Euskaraz

Astean bi ordutan, arratsaldean
Lekua: Zapo txoko

Hostorik oparoenak

Kultur ekitaldiz beteta iritsi da udazkena herrira



Udazkenak kulturaz beteriko hostoak ekarri ditu Azpeitira. Musika klasikoa, abesbatzen doinuak, zine emanaldiak... asteburuetan nahiz astean zehar izango da zer ikusi eta zer entzuna.

Nazioarteko Organo erromantiko zikloa, esaterako, martxan da jada. Azpeiti, Azkoiti eta Bergarako Udalek elkarrekin antolatzen dute ziklo hau, eta lau emanaldi Loiolako basilikan izango dira aurtengoan. Dagoeneko atzeriko bi organo jolek eman dituzte kontzertuak, eta datozen bi asteburuetan Benantzi Bilbao

eta Jose Luis Frantzesenaren emanaldiak entzuteko modua izango da.

Udazkenean abesbatza ekimenak, berriz, Euskal Herriko nahiz kanpoko ahots finenez gozatzeko aukera emango du. Bertako abesbatzek abiatuko dute, gainera, zikloa: urriaren 24an, Barrenetxea eta Urrestilla abesbatzek kontzertua eskainiko dute Urrestillako parrokian.

Doinu klasikoan ondoan gaur egungo musika nahiago dutenek, berriz, aukera paregabea izango dute Triku festan.

Urriko azken asteburuan izango da festa hori, ostegunean abiatuta.

Uda ostea zinemara itzultzeko garaia ere bada, gainera, eta horretarako aukeraz beteta dator aurtengo udazkena ere. Asteburureko Betharram aretoan egingo diren DVD emanaldiez gain, Azpeitiko Zine Klubak ere ekin dio, eta hil honetan, esaterako *Itsasoaren alaba* eta *La teta asustada* filmak emango dituzte. Eta hori gutxi balitz bezala, Mugarik gabe zikloak herrialde txiroetako filmeak emango ditu.



Zezen Beltzen asteburua

Urriaren 16tik 18rako asteburuan sokamuturra eta zezena bihurtuko dira Azpeitiko protagonista. Izan ere, Zezen Beltz elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu ostiral, larunbat eta iganderako. Ostiralean, esaterako, sokamuturraren inguruko mahai ingurua egingo dute, eta 'Sokamutirik' DVDa aurkeztuko dute. Ekitaldia 20.00etan izango da, Sindikatu Zaharrean.

Larunbatean, berriz, goizean sokamuturreko argazki erakusketa eta irudi zaharren bideo emanaldia izango da udaletxeko arkupetan, eta ondoren, txahal-saiheski erreketeta eta dastatzea. Eguerdian, gainera, umeentzat zezen "karretoia" egingo da, eta arratsaldean zezen jolasak, zezen plazan.

Igandean, amaitzeko, ganadu txapelketa egingo da zezen-plazan, eta ondoren zezen enbolatuak egongo dira. Arratsaldean, berriz, umeentzat zezen "karretoia" egingo da, eta sokamuturreko argazki erakusketa eta irudi zaharren emanaldia ere izango da udaletxe azpian.

agendaurria



URRIA

	1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28
29	30	31			



16, ostirala

MUGARIK GABE-ZINE POBREA

Filmeak: Invierno en Bagdad, Los Niños y Niñas ante la Migración eta Carretillas Driver
Lekua: Betharram Aretoa
Ordua: 19:30

ZEZEN BELTZ Elkartearen asteburua

17, larunbata

ZEZEN BELTZ Elkartearen asteburua

DVD EMANALDIA

17:00 Fantasmas a Mogollon
Lekua: Betharram Aretoa

MUGARIK GABE-ZINE POBREA

Filmeak: Los Elefantes nunca Olvidan, Deseada Justicia, La Hipocresía del Deseo, Nasija eta La Maltratada Historia de Maria
Lekua: Betharram Aretoa
Ordua: 19:30

18, igandea

DVD EMANALDIA

17:00 Fantasmas a Mogollon
Lekua: Betharram Aretoa

MUGARIK GABE-ZINE POBREA

Filmeak: Trabajo Infantil en Nablus eta Las Cruces... Poblado Próximo
Lekua: Betharram Aretoa
Ordua: 19:30

ORGANO ERROMANTIKOIA

Bokal Quartetoa

ZEZEN BELTZ Elkartearen asteburua

19, astelehena

IPUIN KONTALARIA

Ekintza: Maite Franko ipuin kontalaria
Zuzendua: L.H. 1-2
Lekua: Udal liburutegia
Ordua: 18:00

23, ostirala

ZINE KLUBA

Filmea LA TETA ASUSTADA
Lekua: Betharram Aretoa
Ordua: 21:30

TRIKU FESTA 2009

AURKEZPENA

24, larunbata

BIDEZKO MERKATARITZA AZOKA

"Mixio taldeak antolatuta"
Lekua: Udaletxeko Arkupetan
Ordua: Goizeko 10:30etatik arratsaldeko 8:30etara

DVD EMANALDIA

17:00 Corazon de Tinta
Lekua: Betharram Aretoa

UDAZKENEAN ABESBATZA

URRESTILLA eta
JULIAN BARRENETXEA ABESBATZA

XXVII. URRAKI igoera
Egunak 24 eta 25
Tokia: Epaitegi-enparantza

25, igandea

ORGANO ERROMANTIKOIA

Arretxabaletako abesbatza

DVD EMANALDIA

17:00 Corazon de Tinta
Lekua: Betharram Aretoa

UDAZKENEAN ABESBATZA

RIGA DOM CATHEDRAL GIRL_S CHOIR (Letonia)

26, astelehena

IPUIN KONTALARIA

Ekintza: Lupe Lecuona ipuin kontalaria
Zuzendua: H.H 4-5

29, osteguna

TRIKU FESTA

30, ostirala

TRIKU FESTA

31 larunbata

TRIKU FESTA

DVD EMANALDIA

17:00 Igor
Lekua: Betharram Aretoa

UDAZKENEAN ABESBATZA

ORIOKO OTXOTEA

I.KROSS MIXTO

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Urriaren 15, 23, 27 eta azaroaren 2, 13, 16, 21, 22, eta 25ean.

ARANBURU. Enparantza nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50

Urriaren 21, 30 eta azaroaren 5, 11, 17, 23, 28 eta 29an

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49

Urriaren 22, 26, eta azaroaren 1, 6, 12, 14, 15, 18, 24, eta 30ean.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Urriaren 16, 19, 24, 25, 28, 31, eta azaroaren 3, 7, 8, 9, 20 eta 26an.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Urriaren 17, 18, 20, 29, eta azaroaren 4, 10, 19, 27an.

